



## Izarrak sarean

Internautek bi supernova aurkitu dituzte jada, etxetik mugitu barik. Teleskopioa ez baizik ordenagailua erabiliz astronomia eta Internet afizio biak úztartzen dituzten bi astronomo ez-profesional izan dira bi aurkikuntzen egileak. Biak italiarrak dira eta Col Druscio (Italia) teleskopioa sarearen bidez maneiatuz egin dituzte aurkikuntzok. Supernovak izarren leherketak dira eta pantailan ikusten zutena ikusi behar luketenarekin konparatuz aurkitu dituzte.

berri emango baitute. Oso diseinu ona badu, lehiaketa batera aurkez dezakegu gainera.

Idea on bat da antzeko beste webguneekin loturak trukatzeko: nik zure webgunea lotura jartzen dut eta zuk nirera. Loturak ez ezik bannerrak edo iragarki grafikoak ere trukatzeko ideia ona da, gurean Euskalbanner-ek egin duen moduan. Hain zuzen, bannerren eta beste online zein offline teknika batzuren gainean jardungo dugu datorren astean.

### Bilatzaileen sekretuak

websitesecrets.com

### Publizitate ikerketak

www.intweek.com

### Banner trukea

www.euskalbanner.com

elkartearen Aurki bilatzaileekin lehian sartu da Jalgí, IXA taldeak garatu duen bilatzaile horren bidez. EHUKo Informatika Fakultateko ikerketa talde bat da IXA, eta hizkuntz ingeniartzaren arloan lan egiten du, batez ere euskararako tresnak egiten. IXAk garatu duen Galn da bilatzaile honetan erabili den hizkuntz teknologia. Bilaketa eremu zehatzetan egiteko, gai edo kokagune geografiko batera murriztu dezakegu Jalgik duen webguneen datu basea. Gurearen helbidea sartzeko aukera ere badamaigu Jalgiren topatzaileak.

### Jalgí portal-bilatzailea

<http://www.jalgi.com>



PORTAL-BILATZAILE bihurtuta ageri zaigu, itxuraz eta edukiz eraldatuta, Jalgiren webgunea. Otsailaren 3an abian jarri duten webgune berriak bilatzaile zerbitzua eskaintzen du, bertako partaide diren batzuen ekarpenez gain. Esaterako, EUSKALDUNON EGUNKARIAREN titular nagusiak ikus ditzakegu Jalgiren hasierako orrialdean. Gainera, zenbait bilaketa egiteko aukera dugu bertatik: artikuluren bat Megadendan, hitzen esanahia Klaudio Harluxet hiztegi entziklopedikoan...

Baina webguneko atalik garrantzitsuena Interneteko euskal webguneen bilaketa tresna da. Berriki Argia Saria irabazi duen Eibar.org

120.000 artikuluko katalogo bat kontsultatu nahiko nuke, etxetik mugitu gabe erosteko eta %5eko deskontuarekin.

**Zer egin behar dut?**



Interneteko zure  
denda  
**megadenda**